

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gordexolako Udala****Hizkutzua Eskakizunei buruzko Erabakia eta Aurrekontua aldatzeko 04/2019 Espedientea hasiera batez onestea.**

Gordexolako Udalak 2019ko otsailaren 28ko ohiko osoko bilkuran, lanpostuen zerrenda aldatzea onartu zuen, idazkaritzako administrari lanpostuei (2) eta adminstrari laguntzaile lanpostuari dagozkien hizkuntza eskakizunei (eta derrigortasun datei) dagokienez. Horren ondorioz, hasiera batez onetsi zuen aurrekontua aldatzeko 04/2019 espedientea (Langileen eranskina).

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrekontua aldarazteko espedientea hamabost egunez (15) jendaurrean egongo da, interesatuek azter dezaten eta Udalbatza Osoari erreklamazioak aurkez diezazkioten. Epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ezean, aurrekontu aldaketa behin betiko onartutzat joko da. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazio horiek ebazteko.

Gordexolan, 2019ko apirilaren 16an.— Alkatea, Ángela María Eguía Liñero